«Gazteen erdararako joera guztiak zuzenduko bagenitu litekeena da erabat erdara erabiltzea lortzea»

Lierni Etxeberria filologoak Ibarrako gazteen hizkera aztertu du; erdal hitz eta esapideak adierazkortasun handiagoa lortzeko sartzen direla azaldu du 2

Sarea kudeatzeko beste sistema alternatibo batean sinesten dute Gipuzkoa Share taldeko kideek

Guifinet egitasmoarekin, Euskal Herri guztia harremanetan jarriko lukeen plataforma ahalbidetzea lortu nahi dute; tartean dago Tolosaldea 6

tolosaldeko ataria

galtzaundi · TOLOSALDEKO hitza · Txolarre

Osteguna, 2013ko urriaren 31. 1. urtea. 17. zenbakia. www.ataria.info

Elena Basagoitia
Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria

«Abesbatza onak lehiaketara ekartzea da helburua»

Ekinbide Etxeak antolatuta bihar hasiko da Tolosako 45. Abesbatza Lehiaketa; lau eguneko egitaraua hirutara mugatu behar izan dute 4

ESPAINIAREN ESKU UTZIKO DUTE JOKIN ARANALDE 3

Enrike Bello eta David Azurza, disko berria aurkezten. I. URKIZU

Tolosako musikarien lana jaso du, Hodei abesbatzak

'Agur Jesusen ama' diskoa grabatu dute 5

ARRAINDEGIA · OKINDEGIA · FRUTADENDA · HARATEGIA

MERK&TO
RONDILLA, 8 - TOLOSA

Arraindegia 943 506 361 · Okindegia 943 506 362 · Frutadenda 943 506 363 · Harategia 943 506 364

PRIMERAKO XERRA
kilo bat erosita
ardo* botila bat opari

"Sagardotegi" erako
TXEKOR TXULETA
9,96 €/Kg

Primerako
KLEMENTINA
0,65 €/Kg

Kanarietako
EXTRA PLATANOA
0,99 €/Kg

Bakailao
KOKOTXAK
11,95 €/Kg

GEZATUTAKO BAKAILAO
xerra kilo bat erosita
muskuilu zaku* bat opari
6,90 €/Kg

* Faustino VII ardo botila. * Gezatutako bakailaoa = Bacalao desalado. 700 gr.-ko muskuilu (mejillon) zakua da.

Eskaintzaren baliogarritasuna izakinak amaitu arteko izango da.

Ibarra

Lierni Etxeberria • Euskal filologoa

«Gazteei guztia zuzenduko bagenie litekeena da aurkako efektua lortzea»

I.T.

Ibarrako gazteen hizkeraren inguruko lana egin du filologo ibartarrak; ukipenean dauden hizkuntzetako hitzak eta esapideak erabiltzearen zergatiak aztertu ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako gazte hizkera aztertu du Lierni Etxeberriak (Ibarra, 1989). Euskal filologoa da, eta graduondoko formazioaren barruan burutu du ikerketa lan hori. Gaztelaniazko hitz asko sartzen dituztela gazteek kaleko hizkeran dio, «adierazkortasuna lortzeko helburuz». Gizartea aldatzen ari den bezala, «hizkuntza neurri berean aldatuz eta egokituz doa» Etxeberriaren arabera.

Zergatik aukeratu duzu gai hori zure ikerketa lanerako?

Pasa den urtean euskal filologiako ikasketak bukatu ondoren, Hiznet - Hizkuntza Plangintza graduondokoa egin nuen. Masterraren bukaeran lan bat egin behar genuen. Gai ugari genituen aukeran lantzeko, eta nik gazte hizkera aukeratu nuen. Orokorrean landu ordez, Ibarrako gazteen hizkera lantzea erabaki nuen. Gazteen hizkeran kode alternantzia nola ematen den aztertu dut.

Zer da kode alternantzia?

Hizkuntzak ukipen egoeran daudenean ematen da. Euskararen kasuan, frantsesarekin eta gaztelaniarekin gertatzen da. Frantsesak eta gaztelerak eragina dute euskararengan, eta geroz eta gehiago ingelesak. Hitz egitean, hizkuntza horietako hitzak eta esamoldeak sartzen ditugu. Gure kasuan, Ibarraren kasuan, gaztelaniarekin ematen da batik bat. Bada, zergatik eta zein kasutan ematen diren kasu horiek aztertu nahi zan dut.

Eta zeintzu dira atera dituzun ondorio nagusiak?

Batetik, gaztelaniazko hitzak edota esapideak sartzearen arrazoia adierazkortasuna bilatzea dela kasu askotan. Euskaraz hitz egitean, euskarazko hitz batzuk agian artifizial samarrak suertatzen zaizkigu, eta horregatik gaztelaniazko hitzak sartzen ditugu adierazkortasun hori lortzeko. Umorea txertatu nahi dugunean ere gertatzen da. Beste norbaitek esandako gauzak errepikatzerakoan ere gaztelaniara jotzen dugu askotan. Euskarak dituen gabezi horiek-edo estaltzeko egiten dugu.

Zein kasu zehatzetan gertatzen da?

Esaterako, «Ikusten?» esan ordez, «Ves?» esateko joera dago. Agian, errazago zaigulako. Haserretzen garenean, edota iraintzeko asko errepikatzen da. Euskaraz askoz ere baliabide gutxiago ditugu, eta kasu horietan gaztelaniara jotzen dugu. «La has cagado!», esaterako, euskaraz «Hanka sartu duzu!» izango litzateke. Euskarazkoak baino indar gehiago duela dirudi gaztelaniazkoak, errazago esaten dugu, eta gazteek, zer esanik ez.

Azterketa hasi aurreko usteak frogatuta al dira?

Hasieran uste genuena zen erreakzio moduan, edota aurkakotasun jarrera adierazteko jotzen zutela gazteek erdal adieretara. Euskara jatorra erabili ordez, gaztelania erabiltzen zutela jarrera kontuagatik. Baina, ikusi dut ez dela horrela.

Nola bildu dituzu lekukotasunak.

12 eta 15 urte bitarteko gazteak batetik, eta 22 eta 25 urte bitarteko koak bestetik, alderatu ditut. Bi eztabaida talde sortu nituen, eta bakoitza bere aldetik grabatu. Bi multzoek gaztelania asko sartzen dutela hitz egiterakoan ikusi dut. Azterketa egin aurretik gaztetxoenek gehiago sartuko zutenaren susmoa nuen, baina ez da horrela izan. Beraz, ez dakit zenbateraino den gazteen aurkakotasun jarreraren ondorio edota hizkuntza aldatzen ari delako ematen den fenomeno hori. Egia da ere, egoera nahiko formalean egin nuela azterketa, eta horrek eragina izango zuela gazteen hitz egiteko moduan.

Adinaren arabera ez da gutxitzen, beraz, joera hori.

25 urtera arte ikusi dut ematen dela erdal hitzak sartzeko joera, beraz, ez dut uste adinaren arabera baztertzen joaten denik.

> «Ez da adinaren araberako fenomenoa, gizartea aldatuz doa, eta hizkuntza ere bai»

Zer egin beharko genuke erdal hitzetara jo beharrik ez izateko?

Hizkuntza gizartearekin batera aldatuz doa, eta datorren moduan hartu beharko dugu. Hori bai, bere neurrian. Ez dut uste horrelakoak erabat zuzentzen hasi beharko genukeenik. Ahozkotasunean, maiz, gauzak esaten diren bezala esaten dira, eta guztiak zuzentzen hasiko bagina agian kontrako efektua lortuko genuke. Gazteei guztia zuzenduko bagenie litekeena da erabat gaztelania erabiltzea lortzea.

> «Euskal Herriko txoko guztietan sartzen da erdara ahozkoan»

Euskal Herriko beste txokoetan neurri berean errepikatzen al da fenomeno hori?

Bai.Beste hiru ikerketekin alderatu dut nire azterketa: Goierrin eginiko batekin, Azpeitia inguruan eginikoarekin eta Nafarroan eginiko batekin. Hiru horietan ere ondorio berdinak atera dituzte. Hiru horietan aipatzen dena da gaztelaniara jotzen dela, kasu batzuetan, adierazkortasuna lortzeko helburuarekin.

Euskal Herritik at, munduko zein lurraldetan egin dezakegu topo kode alternantziarekin?

Hego Amerikan, esaterako. Han gaztelaniaz hitz egiten dute, baina ingelesaren eragin handia dutenez, ingelesezko hitzak eta esapideak sartzea ohikoa da euren ahozko hizkeran. Ukipen egoeran dauden hizkuntzetan fenomeno antzekoa gertatu ohi da, eragin handia dutelako ukitzen dituzten hizkuntzek, eta azkenean tarteko hizkuntza moduko bat sortzen da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako:
Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Informazio gehiago nahi duenak bi telefono zenbaki ditu eskura, edozein zalantza argitzeko 943 69 68 82 edota 606 52 19 92.

BESTERIK

Pintxo potea:
Tolosako Igarondo tabernan, gaur pintxo potea 2 eurotan: kriantza edo edozein kontsumizio + Barriolak labanaz moztutako urdaiazpiko iberikoa.
Arratsaldeko 18:30etik aurrera.
Plaza Zaharra, 4 • Tolosa (udaletxearen ondoan)

Tolosako gozotegietako produktu onenak, prezio merkeagoan

Goxua paseak euro bateko balioa du eta bost gozotegietan 1,5 euroan produktu jakin bat erosteko balio du

MIKEL IRAOLA **TOLOSA**

Tolosa gozoaren erreinu izan zen pasa den asteburu osoan, Tolosa Goxua eta lehen Txokolate Egunaren ospakizunekin. Gozozaleek Euskal Herriko txoko ezberdinetako gozogileen produktuak dastatzeko aukera izan zuten. Tartean, herriko bost gozogileek egindako 4.000 trufa inguru banatu ziren. Baina asteburu horretan bakarrik ez, urteko gainontzeko egunetan ere, gastronomiaren, eta batez ere, gozoaren hiriburu bihurtu nahi da Tolosa.

Horregatik, Tolosaldea Garatzeneko turismo sailak, Tolosa Gourmet klubak eta Tolosako Udalak, duela hilabete batzutatik hona, tabernetako pintxoekin erabili duten estrategia bera gozotegietara eraman dute. *Ezagutu hiriburu gozoa* lelopean, *Goxua Pass* delako deskontu txartelak salduko dituzte.

«Teila eta zigarrotxoak izan dira orain arte Tolosako gozoteria nazioartean ospetsu egin dutenak, baina bisitari gozozaleei Tolosak dituen bestelako guztiziak erakutsi nahi dizkiegu» diote ekimen honen sortzaileek.

Modu horretan, Tolosako bost gozotegiek hartuko dute parte produktu berri honetan: Eceiza, Gorrotxategi, Gorosti, Ibañez-Gozona eta Saizarrek, hain zuzen. Lehenak, krema, nata eta chantilly-zko bonbak eskainiko ditu; Gorrotxategik bere espezialitateetako bi eskainiko ditu, txokolate bero taza bat eta xaxu bat; Ibañez-Gozonan, hiru tenoreak dastatu ahal izango dira; Gorostik, txokolatezko hiru trufako poltsatxoa eskainiko du; eta Saizarrek, berriz, Saizartxoak, hau da, almendraz, txokolatez eta gindaz egindako artisau pastak.

Tolosa Goxuan gozo aukera zabala eskaini zuten Euskal Herriko gozogileek. M.I.

Salgai daude euro batean

Dagoeneko salgai daude Tolosa Goxua paseak. Pasa den larunbateko azoka aprobetxatu zuten hasiera emateko, eta 2014 urte osoan zehar egongo dira eskuragarri Tolosaldea Tour turismo bulegoan. Pasearen salneurria euro batekoa da, eta bertan bost gozotegietarako txartelak egongo dira. Pase horiekin, bisitariak 1,5 euroan gozotegi bakoitzeko produktu jakin hori erosi ahal izango du, ohi baino merkeago, alegia. Erositakoa bertan jan, edo etxera eramateko izan daiteke.

Gehienbat, bisitariei zuzendutako eskaintza da Tolosa Goxua pasearena, baina herritarrentzat ere eskaintza ona dela azpimarratu dute: «Azken batean, Tolosako gozo ezberdinak probatu eta gozotegi ezberdinetatik pasatzea da produktu berri honen beste helburuetako bat».

Tabernetako *Pintxo Pass* delakoaren arrakasta errepikatzeko itsaropentsu azaldu dira gozogileak.

1. Eceiza
Eskainitako produktua. Krema, nata edo chantilly-zko bonba bat.
Kokalekua. San Frantzisko pasealekua, 8; edo Rondilla kalea, 34.

2. Gorosti
Eskainitako produktua. Txokolatezko hiru trufen poltsatxoa.
Kokalekua. Oria etorbidea, 8.
Prezioa. 1,5 euro.

3. Gorrotxategi
Eskainitako produktua. Txokolate taza bat eta Xaxu bat.
Kokalekua. Plaza zaharra, 7.
Prezioa. 1,5 euro.

4. Ibañez-Gozona
Eskainitako produktua. Hiru mokadutxo, hiru tenoreak.
Kokalekua. Pablo Gorosabel, 40.
Prezioa. 1,5 euro.

5. Saizar
Eskainitako produktua. Saizartxoak, almendra, ginda eta txokolatezko artisau pastak.
Kokalekua. Iurre auzoa, 14.

Jokin Aranalderen aurkako euroagindua onartu dute

Hiru asteren buruan, erabakiaren arrazoiak jakinarazi beharko dizkio epaitegiak abokatuari

ERREDAKZIOA **IBARRA**

Jokin Aranalde euskal iheslari politikoen kolektiboko mintzaidea da eta Heletan atxilotu zuen Frantziako poliziak Herria Dugu Arnas izeneko ekitaldiaren ondoren, Espainiak egindako euroagindu eskari bat zela medio. Aranalde atxilotu ondoren, haren kontrako euroagindu eskaria aztertu zuen Paueko auzitegiak.

Informazio gehigarria eskatu ondoren, ez zituen aintzat hartu defentsaren oharrak eta ontzat eman zuen Espainiaren eskaria. Aranaldek erabakiaren aurkako helegitea ezarri zuen. Paueko auzitegiko Kasazio Gortea bildu zen urriaren 23an, biharamunean erabakia plazaratzekotan. Azalpenik eman gabe, Kasazio Gorteak ez zuen deliberorik plazaratu urriaren 24an.

Atzo ordea, ez zuen onartu Aranalderen eskaria. Prozedurari jarraiki, Frantziak berehala utz dezake Aranalde Espainiako justiziaren esku. Ez dago erabaki horren aurkako helegiterik. Erabakia hartu bitartean, Aranalde libre uztea deliberatu zuen Frantziako justiziak ekainean, epailearen kontrolpean utzi arren.

Paueko epaitegiak idatzi baten bidez jakinarazi dio erabakia Amaia Errekarte defentsa abokatuari. Berak azaldu duenez, ebazpenean deliberoa agertzen da, zehaztu gabe zertan oinarritzen den erabakia. Hiru astetan erabakiaren arrazoiak jakinarazi behar zaizkio abokatuari.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Aia. Urdaneta Auzoan. 120m²-ko borda (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrenoa. Oso polita. Prezio onean **240.405 euro!**

Zarautz. Azken Portu. 96m². 3 logela eta trastelekua. Oso egoera onean. 390.658 euro.

Zarautz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476 euro!**

Zarautz. Alde zaharrean. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

Zarautz. Herrikobara kalean. 2 logela eta igogailua. 200.000 euro.

Zarautz. Zelai Ondo. 3 logelako etxea eta trastelekua. Igogailuarekin. Erreforma behar du. **210.000 euro!**

Zarautz. Zentroan 2 logela eta trastelekua (14m²) kanpora ematen dutenak. 270.455 euro.

Zarautz. Zentroan. Emakumezkoen **ileapaindegia** alokatzen da.

Bergara. Lizaria kalean. **Garajeak** saltzen dira. **7.000 euro**-tik aurrera (BEZ barne).

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

Elena Basagoitia • Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria

«Mundu guztian erreferentzia bilakatu da Tolosako Abesbatzen Lehiaketa»

Tolosako 45. Abesbatza Lehiaketa ostiralean hasi eta igandean amaituko da; aurten, murrizketak medio, lau eguneko egitaraua hirutan utzi behar izan dute antolatzaileek

Elena Basagoitia tolosarrari Ataria Irratiako lankideek elkarrizketa egin zioten herenegun. Irudian, irteerako une bat. A. IMAZ

JON MIRANDA-ASIER IMAZ TOLOSA

Abesbatza Lehiaketa Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen du, eta Elena Basagoitia bertako lehendakaria da. 45. edizioa gogo handiarekin prestatu dute, eta azken egun hauetan «ero moduan» dabiltzala dio Basagoitiak. Abesbatza zaleak direnak bertara gonbidatu ditu ekinbideko lehendakariak, eta ez direnak, berdin: «Ziur nago behin joaten baldin badira, errepikatu egingo dutela».

Migel Arretxeren hutsunea nabarmena izango da aurtengo lehiaketan.

Bai, zalantzarik gabe. Lan asko egin duen pertsona bat joan zaigu. Lotura handia eduki du ekinbide etxearekin hasieratik, 1987. urtetik, eta bai, bere falta sumatuko dugu.

45. edizioa da aurtengoa. Gutxik jarriko dute lehiaketaren maila zalantzan?

Nik uste dut mundu guztian zehar erreferentzia dela Tolosako abesbatza Lehiaketa.

Hasiera hura nolakoa izan zen?

Duela 45 urte bitartekoak ez ziren berdinak. Hasieran, lehiaketa xume bat bezala hasi zen, baina pixkanaka-pixkanaka indartzen joan da. Gero eta abesbatza hobeak etortzen hasi ziren, eta batak bestea ekarri, eta hementxe gaude.

Nazioartean, beraz, bere lekua egin du Tolosak.

Bai, eta hori, urtez urte egindako lanaren emaitza da. Nire ustez helburuak argi daude; abesbatza onak hona ekartzea, eta Euskal Herriko musika ezagutu eta ezagutzera ematea.

Bertako herritarrek ere asko ikasi zuten abesbatzen munduaz.

Hori argi ikusten da jendea entzutera joaten denean; abesbatzen bat entzun orduko normalean badaki ondo edo ez hain ondo abestu duen, eta hori txaloka hastean nabaritzen da. Nik uste, Tolosa eta inguruko herritarrek belarria ondo landuta daukatela.

Antolakuntzarako orduan baliabideak garrantzitsuak dira. Nondik lortzen dituzue?

Azken bost urteetan finantzaketa %40 inguru murriztu da, orduan aldaketak egin behar izan ditugu. Iaz, ahots taldeak eta haur abesbatzak urtez urte txandatzea erabaki genuen. Lehen, lau eguneko lehiaketa izaten zen, eta aurten, hiru besterik ez dira izango. Gu ere egokitzen ari garela esan beharko dugu.

Noren laguntza izan duzue?

Ekonomikoki gehienbat erakunde publikoena: Kulturako ministeritza, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Tolosako Udalarena. Horiekin batera, Tolosa Gasa eta *El Diario Vasco* ere laguntzaileen artean daude. Orain arte, beste erakunde batzuen babesa izaten genuen, baina aurten ez dira egongo horiek.

Nola hautatzen dituzue abesbatzak?

Musikariz osatuta batzorde artistiko bat dago, eta hauek urte osoan lanean aritzen dira. Han eta hemengo abesbatza asko entzuten dituzte, baita eskaerak jaso eta aztertu ere. Une honetan, datorren urteko abesbatzekin ari dira lanean.

Abesbatzak zuzenean ikusten al dituzte, edo gaur egun hori ez da beharrezkoa.

Gaur egun internet bidez lan gehiago egiten da, diskoak eta grabazioak entzunez. Garai batean, bai, hara eta hona ibiltzen ziren, baina esan bezala, gaur egungo bitartekoekin hori ez da beharrezkoa.

Tolosan egiten duten egonaldia ere zuek antolatzen duzue.

Alde batetik bidaia dago. Batzuk laguntzak jasotzen dituzte horretarako, eta besteak, euren kabuz moldatzen dira. Gero ostatua, otorduak, eta abar gure kontura izaten dira. Hori guztia lotzeko lan eta azpiegitura asko behar izaten dira.

Lanerako, zenbat lagun mugitzen ditu abesbatzen lehiaketak?

50-60 inguru, eta gehienak boluntarioak dira. Hemendik, gainera, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, euren laguntzarik gabe abesbatzen lehiaketa hau aurrera ematea ezinezkoa izango baitzen.

Nondik etorriko dira abeslariak?

Hamasei abesbatza etorriko dira: Alemania, Txekia, Espainia, Ameriketako Estatu Batuak, Estonia, Finlandia, Indonesia, Errusia eta Suediatik.

Europako Sari Nagusiaren zirkuituan dago Tolosako lehiaketa.

Sei herrialderen artean jokatzen da Europako Sari Nagusia, txandaka. Tolosan 2011. urtean izan zen.

Tolosara itzuliz, lehiaketak zein atal ditu?

Aurten, bi sailetan hartuko dute parte. Alde batetik, haur abesbatzak egongo dira, eta gainontzekoak ganbera abesbatza sailean ariko dira. Azken hauen artean, batzuk ahots nahasietan eta besteak ahots berdinekoetan.

Estilo desberdineko obrak ere egongo dira.

Alde batetik, polifonia daukate, eta bestetik, euskal musika eta folklorea. Euskal abesti bat kantatzera behartuta daude, baita norberaren herriko folkloreko bi abesti ere. Polifonian,erdi aroko edo garai bateko abesti batekin batera, XX. mendetik aurrera idatzitako bi obra kantatu behar dituzte.

Haurren abesbatzek urtero jendetza biltzen dute.

Atera orduko saldu dira aurten ere haurren abesbatzako sarrera guztiak. Larunbatean izango da, eta ilusio handia sortzen dute ikusleen artean.

Nondik etorriko dira?

Madriletik, Estoniatik, Errusiatik, Txekiatik, eta Kataluniatik. Guztira zazpi abesbatza izango dira. Normalean 40 haur inguruk osatzen dute bakoitza. Lehiaketan parte hartzeaz gain, zirkuitu moduko bat egiten dute, bost edo sei kontzertu emanaz Euskal Herrian. Eurentzat oso polita izaten da; etxetik urrun, kultura berri bat, bidaia...

Aurten ez da egongo Euskal Herriko abesbatzarik.

Azken urteetan parte hartu izan dute, baina aurten ez da tokatu, beraz, hurrengoan izango da. Maila badago, eta hori egongo diren kontzertu berezietan ikusiko da, Kea taldeak hartuko baitu parte.

Lehiaketa ostiraletik igandera izango bada ere, topaketak aurreko asteburuan izan ziren.

Abesbatzen Topaketa izaten da lehen ekimen, eta hortik aurrera, dena segidan etortzen da. Ondo atera zen, eta gustura egon ginen bertan. Oñatiko eta Hondarribiko abesbatzak etorri ziren, eta biak oso ondo aritu ziren; kontzertu polita izan zen.

Emanaldi bereziekin jarraituz, larunbatean, lehiaketatik kanpo Camerata Reale ariko da.

Ganbera abesbatza da. Duela urtebete eskas sortu zen, Madrileko Teatro Realeko abesbatza titularraren eta Intermezzo abesbatzako lagunen artean. Guztira, zortzi herrialde desberdinetako hamabi pertsonez osaturik dago. Musika da euren pasioa, eta Leidorren oso kontzertu polita eskainiko dutela uste dut.

Lehiaketara etortzen direnek Leidor aretoa asko goraipatzen dute. Gustura al zaudete lekuarekin?

Duela urte batzuk egin ziren obrak bukatuta asko irabazi du sonoritatean eta oholtzan. Orain ondo dago.

'In Memorian' antolatu duzue igandean, zergatik?

Hasieran Topic-en zen egitekoa, baina azkenean, San Frantziskon izango da. Sarrera bila jende asko gerturatu da eta Topic txiki gelditu zaigu. *In Memorian* Iñaki Epelde eta Joselu Andueza omentzeko antolatu dugun kontzertua da, izan ere, bi pertsona horiek lotura handia izan dute Tolosako Ekinbide Etxearekin. Gure esker ona adierazteko izango da omenaldia. Sorpresa bat ere egongo da, pieza berri bat estreinatuko baita.

Azkenik, igandean, sari banaketa ekitaldia eta bazkaria izango dira.

Orduan banatuko dira sari guztiak, eta tartean, nagusia. Irabazleak Europako Sari Nagusian hartuko du parte, Tolosa ordezkatuz. Ondoren bazkaria izango da, eta agian, hori izaten da momentu politenetakoa. 800 lagun inguru biltzen gara jaialdiari amaiera emateko. Abesbatza guztiez gain, herritarrak egoten dira, izan ere, nahi duenak txartela erosteko aukera dauka.

Txartelak aipatu dituzula, sarreren salmenta nola doa?

Haur abesbatzen lehiaketarako guztiak saldu dira, eta amaiera ekitaldirako gutxi gelditzen dira. Beste emanaldietarako oraindik gelditzen dira, baina salmenta ondo doa.

Napoleonen tropak Tolosan sartu zirenekoa hobeto ezagutzeko gunea

Donostia 2016ko jardueren barruan, abenduaren 15era bitarte zabalik izango da erakusketa, Aranburu jauregian

ITZEA URKIZU

«Etorkizuna eraikitzeko iragana ezagutu behar da», Tolosako alkate Ibai Iriarteren ustez, eta bide horri eutsi nahi izan dio, *1808-1813, Inbasio napoleonikoak* erakusketak. Donostia 2016 fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, eta Zumalakarregi museoak ekoitzita, datorren abenduaren 15era bitarte ikusgai izango da, Aranburu jauregian.

Donostia 2016ko Inesa Aristimuñok Bake Ituna egitasmoari garrantzia berezia eman dio, historia ezagutzeaz gain, «elkarbizitzarako gakoa» delako. Bide horretan, foru aldundiko Ikerne Badiolak ere ardatz berari eutsi dio, eta bakearen inguruko hausnarketak sustatzeari garrantzia eman dio: «Gai ezagun batez ari da erakusketa, eta bakerantzako eta normalizaziorako hausnarketan, gogoan izan behar dira horrelakoak».

Honegatik guztiagatik, hiru ordezkariak bat etorri dira Donostia 2016 egitasmoaren lurralde izaera nabarmentzerakoan, eta Donostiatik harago, gipuzkoar guztien zerbait dela diote. Horrela, Irunen estreinatu zuten erakusketa Tolosan ikusgai izango da, eta Bergarara eramango dute, abenduan.

Tolosan, gune estrategiko

Izenburuak dion moduan, erakusketak Napoleonen tropen inbasioen garaia du hizpide, eta Tolosa gune nabarmena izan zen garai hartan, besteak beste, kokaleku estrategikoagatik, eta errege-bidean zegoelako.

Frantziarrek Gipuzkoa inbaditu zuten, eta tropen pasabidea izan zen lurraldea. Aliatuak izan ziren, lehenik, Portugalera begira jartzeko; gero, ordea, 1808tik 1813ra bitarte, etsaiak izan ziren frantziarrak, Gipuzkoarentzat.

Horrela, 1808tik aurrerako gertaerak dokumentu historiko, ikus-entzunezko, argazki, koadro eta material arkeologikoaren bidez kontatuko dizkiete bisitariei, bost ardatz nagusitan: inbasioa, gerrilla, frantsestuak, Cadizko konstituzioa eta Gipuzkoako batailak. Azken zati honetan, Gazteizko, Donostiako eta San Martzialeko batailez gain, Tolosakoaren inguruko zehaztapenak ezagutzeko aukera ere izango da.

Mikel Alberdi, Ibai Iriarte. Ikerne Badiola eta Inesa Aristimuño, erakusketaren aurkezpenean. ITZEA URKIZU

Aipatzekoa da, orain arte argitara gabeko material arkeologikoa ikusgai izango dela. Garai hartan bi ospitale zeuden Tolosan, eta Aranzadi Zientzia Elkartekoek horregatik aurkitu zituzten hainbeste eskeleto. Mikel Alberdi komisarioaren arabera, «material honek argi erakusten du Tolosak inbasio honetan izandako garrantzia estrategikoa, gendarmeriaren soldadu-talde batentzat eta Napoleonen tropentzat bi ospitale izan zirelako, besteak beste».

Napoleonen tropena bost urteko okupazioa izan zen Tolosan, eta 1.600 lagun inguru hil ziren, guztira. Horrez gain, emakumeak bortxatu zituztela eta gizonezkoak armadan sartzera behartu zituztela ere azaldu dute antolatzaileek.

Tolosako musikarien ondarea jasoko duen bilduma abiarazi du, Hodei abesbatzak

'Agur Jesusen ama' diskoa grabatu dute Gorriti, Mokoroa eta Azurzaren erlijiozko hainbat obrarekin

ITZEA URKIZU

Agur Jesusen ama izena hartu du, Tolosako Musika Sakroa bildumako lehen diskoak. Hodei abesbatzak David Azurzaren gidaritzapean grabatu ditu obrak, eta Gerardo Rifón aritu da organoan.

Egitasmoa 2004. urtetik dator. Orduan hil zen Javier Bello Portu musikaria, eta bere senideek haren partiturak eta obrak grabatu eta ezagutarazi nahi izan zituzten. Horrela, Javier Bello Portu kultur egitasmoa sortu zen; Bello Porturen obra zabaltzeaz gain, Tolosako musikarien lanak bildu eta kalitate oneran grabatzeari ere garrantzia eman diote, eta bilduma hau da ideia horien fruituetako bat. Horrela, Tolosarekin harremana izan zuten eta musikarien erijio-musikazko lan batzuk jaso dituzte, etorkizunean gehiagorekin jarraitzeko itxaropenez.

Enrike Bello eta David Azurza, diskoaren aurkezpenean. ITZEA URKIZU

«Tolosa oso herri aberatsa da, eta musikan altxor bat du XIX. mendetik hona. Euskal Herrian eta Espainian ez da bilduma propio bat egiteko adina obra dituen herririk izango», azpimarratu du Azurzak. Felipe Gorritik eta bere ikasleek XIX eta XX. mendeen artean eraturiko musikagile eskolaren ondarea berreskuratu eta gorde nahi ditu elkarteak, beraz; Eduardo eta Ignacio Mokoroa, Javier Bello-Portu eta Joaquin Pildain izan ziren Gorriti maisuaren ikasle nabarmenenak.

Horrela, Tolosako autoreen obra berreskuratze horretan, partiturak zehaztapen osoz jarraitu, eta sei lan bildu dituzte diskoan: Gorritiren *Agur Jesusen ama*, Tolosan oso ezaguna dena; Gorritik Santa Klarako organoaren estreinaldirako espreski konposaturiko hiru ahotsetako meza; Gorritiren *Tota Pulchra*; Mokoroaren *Tolosa-eliz barrutiko lenengo eukaristi-batzarreko ereserkia*; David Azurzaren Birjiña maite; eta azkenik, Azurzaren *Ave Virgo Sanctissima*.

Bihar bertan hasiko da Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, eta egitasmoa aprobetxatuz, Leidorren salgai izango da diskoa, 10 euroren truke. Honez gain, *hodeitolosa@gmail.com* helbidera idatzita ere, *Agur Jesusen ama* eskuratzeko aukera izango da, abesbatzako kideei eurei eskatuz.

Tolosaldea

Sare aske eta irekia ehunduz dabil Gipuzkoa Share



Asier Garaialde Ataria-n izan zen, Anoetako bilera informatiboaren haritik. A. G.

Euskal Herri guztia harremanetan jarriko lukeen plataforma ahalbidetzea da taldearen helburua; bidean, baita Tolosaldekoa ere

AMAIA GOIKOETXEA AZPEITIA

Sarea kudeatzeko beste sistema alternatibo batean sinesten dute Gipuzkoa Share taldeko kideek. Euren proposamena azaltzeko eta herrian zabaltzeko, Anoetako udaletxean bilera informatiboa egin berri dute, baina aurretik Ataria-n izan da taldeko kidea den Asier Garaialde.

«Sistema horizontala proposatzen dugu: hau da, inongo antolakuntza hierarkikorik gabe egituratutako sarea. Ez da gertatu ohi den moduan, operadore komertzialek bere sarea sortzen dutela eta haien jabe direla; kasu honetan, jabe asko daude, eragile asko eta askoren artean osatzen da honenbestez sarea», azaldu du Garaialdek.

Guifinet egitasmoaren baitan, Gipuzkoa Sharek oinarrizko azpiegitura prestatuko luke. Garaialderen esanetan, «errepideak sortzen ditugu. Gipuzkoa Sharek ez du espresuki konexio bat ematen momentuz behintzat, baina horretarako azpiegitura sortzen dugu». Gaur egun, konexiorik ez dagoen tokiak ere sarean barneratuko lituzkete. Izan ere, Garaialderen aburuz, operadore handiek irismen arazoak argudio hartuta leku asko konexiorik gabe uzten badituzte ere, proposaturiko azpiegiturekin hori aurrera eramatea posible litzateke: «Konexioa edukitzeko aukera hori beti egongo da, interesatuak eta bertakoak mugitzen hasi eta proiektu honen eragile bihurtzen badira», azpimarratu du Gipuzkoa Shareko kideak.

Era berean, sarearen bitartez konexioak partekatu ahal daitezke: «Ibilgailuen kasuan bezala, egokiagoa ikusten dugu modu sozial batean sarea ere partekatzea».

Balio erantsia

Sarea eta konexioetaz hitz egin eta interneta da jendeari burura etortzen zaion tresna nagusia; ez da bakarra, ordea. «Internet ez da komunikazio telematikorako bide bakarra, baina jendeak hori besterik ez du ezagutzen», azaldu du.

«Sare honek ematen duen aukera barne zerbitzuak eskaintzea da: egun teknologia irekiak daude eta barne zerbitzariak jarri daitezke, eta hala sarea erabili fitxategiak partekatzeko edota streamingak egiteko. Niretzako izugarriko poztasuna izango litzateke, adibidez, sare sozial honen bitartez gaztetxeek euren artean harremana izango balute, beraien artean koordinatzeko», gaineratu du. Hala, internetarena baino, sarearen erabilera propioa da indartu nahi dutena. Gainera, sare honek internetak eskaintzen duena baino banda zabalera handiagoa eskainiko luke.

Errepidea eraikitzen

Nazio mailako sare hori lortzeko proiektua ari da forma hartzen, eta tartean, Tolosaldea. Eskualdean sare nagusia ezarrita dago jada: «Andoaingo Sorabilla auzotik Abaltzisketaraino dago konexioa. Sare hori kudeatzeko eta konfiguratzeko Irurako Udalak utzitako herriko liburutegiko konexioa erabili dugu», azaldu du Garaialdek. Horrela ikusarazi nahi duenez, ez du konexioak herrian bertan egon beharrik, sarearen bidez elkarbana daitekeelako. Proiektua zabaltzeko bidea ez da erraza izan baina azkenean errotzen ari dela dirudi: «Aldundiak eman zuen laguntza baten ondorioz, Gipuzkoako 25 udalerri batu ziren proiektura. Guk azaldutakoarekin konfiantza erakutsiz eta hurbileko inongo eredurik gabe. Guretzako hori sekulako aurrerakuntza izan zen», aitortu du Garaialdek. Behin udalen babesa lortuta, erdietsi dute jendearengan interesa eragitea.

Tolosaldean proiektuak izan duen onarpen eta babes handia ere nabarmendu ditu: «Tolosaldea Garatzenen eta Tolomendiren laguntzarekin eta udalekin, Tolosaldea izan da proiektuaren alde %100ean egin duen eskualde nagusia: herri txiki askok beste aukerarik ez dutelako edo proiektuaren berezitasunagatik, baina sartu egin dira».

Duela ia 4 urte ekin zioten proiektua ezartzeari baina azken urtean egin dituzte aurrera pausu handienak. Sare nagusia martxan jarri eta erabiltzaileek hilabete honetatik aurrera konektatzeko aukera izango dutela aurreikusten dute.

Herrialde Katalanetako ereduari jarraituz

Nazio mailako sarea erdiestea litzateke Gipuzkoa Shareren helburua, Herrialde Katalanetako ereduari jarraituz. «Maila horretako sarea lortzea ez da utopikoa. Kataluniarrek Guifinet proiektua duela 8 urte sortu zuten eta nazio mailako sarea lortu dute jada. Hura Euskal Herria baino handiagoa da eta ez zuten inongo esperientziarik», dio Garaialdek.

Herrialdeko Katalanetakoa hasi zenean interesez jarraitu zuen: hemengoa ez bezala, hangoa herritarren bidez hasi zen, erakunde publikoen laguntzarik gabe, eta hemen udalen bidez eman da lehen pausua. «Dena den, herriaren erakundea da eta alde horretatik balio bera ematen diogu», dio Gipuzkoa Sharekoak.

«In Memoriam» ikusteko sarrerak

TOLOSA. Azaroaren 3an, 19:00etatik aurrera, 'In Memoriam' kontzertua eskainiko da San Frantzisko elizan, eta sarrerak jada eskuragai daude, Topic-en. 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara bitartean. 4 sarrera hartu ahal izango ditu gehienez lagun bakoitzak, hauek agortzen diren arte. Sarrera doakoa da.

Autobus zerbitzu berezia kanposantura

TOLOSA. Santu Guztien eguna delaeta, autobus zerbitzu berezia atondu du udalak, herritarrak kanposantura igo ahal izateko. Musika eskolatik abiatuz, San Frantzisko elizan, geltokian, Berazubin, Iurramendiko biribilgunean, kiroldegian eta Amarotzen egingo ditu igotzeko geldialdiak.09:00etan hasi eta 18:00etara izango da horretarako aukera.

Hildakoen aldeko meza, larunbatean

TOLOSA. San Blas kanposantuko kaperan, herrian hildako guztien alde meza ospatuko da larunbatean. 11:00etan izango da.

68koen 'kinto-festan' izena emateko epea

TOLOSA. Azaroaren 16an ospatuko da 1968an jaiotakoen kinto-festa. 12:30ean ekingo diote pintxo-potearekin eta ondoren, otordua egingo dute.Parte hartu nahi duenak, azaroaren 8ra arteko epea du izena emateko, eta 40 euro sartu beharko ditu 0081 7547 71 0006229428 kontuan izen-abizenak adieraziz. Informazio gehiago eskuratu daiteke *1968tolosa@gmail.com* helbidean.

62an jaiotakoak biltzeko bazkaria

TOLOSA. Azaroaren 9an 1962an jaio zen belaunaldia batzeko bazkaria antolatu dute. Hurbiltzeko asmoa duenak, 50 euro sartu beharko ditu, azaroaren 5a baino lehen, 2095 5067 10 9113239280 kontuan. Facebookean ere *Tolosaldea 1962* taldea osatu dute eta jendea parte hartzera animatu dute.

Bertsolari Txapelketa Nagusirako autobusa

TOLOSA. Udaberri dantza taldeak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatu du; abenduaren 15an izango da BECen. Izena emateko 680 682 560 zenbakira deitu edo *udaberri@udaberri.com* helbidera idatzi behar da. Joan-etorriaren salneurria 15 eurokoa da.

Jaietan murgilduko dira Amasa eta Azkue auzoa asteburuan

Amasak azoka eta mendiduatloia ditu ospakizunen ardatz eta Ibarrako auzoak II. Azkue Eguna

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Amasako mendiduatloiko iazko une bat. JONE AMONARRIZ

Amasak datorrek azaroaren 11an San Martin eguna ospatuko badu ere, asteburuan ospakizunen aurrerapena izango dute Villabonako auzoan. Ostiralean, azaroaren 1ean, Amasako III. Azoka Bereziari ekingo zaio. Amasako frontoian orotariko elikagai eta artisautza postuak egongo dira bizilagunen zein bisitarien eskura. Erosketak goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean egiteko aukera egongo da.

Ainhoa Barandiaranek, festaren antolatzaile den Martina Kultur Elkarteko kideak jakinarazi bezala, doako autobus zerbitzua eskainiko dute Amasa bitartean, goiz osoan zehar: «Santu guztien eguna izanik eta Amasako plazan kotxe pilaketak saihestu nahian, trafiko neurriak hartu ditugu». Arantzabitik aurrerako errepidea itxita egongo da, bizilagunentzat izan ezik. Gainontzekoek beraz, autobus zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute. Autobusa Olaederra kiroldegitik abiatu eta Arantzabin geldialdia egingo du, kotxea bertan aparkatu dutenentzat.

Azaroaren 3an, igandean, berriz, III. Euskal Herriko mendiduatloi zirkuitoa egingo da Amasan. Goizeko 11:00etan hasita, parte-hartzaileek, 3,86 kilometro egin beharko dituzte korrika, 17,79 kilometro bizikletaz eta bukatzeko, beste 1,62 km korrika. Amasako errepidea itxita egongo da 10:45-13:30 bitartean.

Ibarrako Azkue auzoari dagokionez, iaz abiatutako egitasmoari jarraika, larunbatean, II. Azkue Eguna ospatuko da. Egun batez, Ibarrak alkate berria izango du; izan ere, eguerdi aldera, Azkueko astoa jaitsiko da auzora eta Azkueko alkate izendatuko dute.

Bizilagunak festa giroaz zipristindu asmoz, antolatzaileek etxeetako balkoiak berde kolorez apaintzeko deia luzatu dute.

Ekitaldiei dagokionez, goizeko 11:00etan batukada dianarekin festan murgiltzeko oihartzuna zabalduko da. Jarraian merkatu txikia, pintxo-potea, haur jolasak, auzo bazkaria eta haur futbol partida iritsiko dira. Musika atalak Belarminak taldeak beteko du, gauaren amaieran DJari lekukoa pasaz.

Egitarauak

AMASA

Azaroak 1, ostirala.
10:00-14:00. Amasako III. Azoka Berezia.
Azaroak 3, igandea.
11:00. Euskal Herriko III. Mendiduatloi zirkuitoa.

AZKUE AUZOA

Azaroak 2, larunbata.
11:00. Batukada, jai hasiera.
11:00. Merkatu txikia.
11:15. Pintxo-potea eta helduentzako toka txapelketa.
12:00. Haur jolasak, auzoan egindako jokoekin. Buruhandiak izango dira umeen gozamenerako.
14:00. Auzo bazkaria. Norberak bere jana eraman behar du. Edaria, postrea, kafea, eta txupitoa 5 euroren truke. Txartelak Erre-Berrin eta egunen bertan txosnan salgai. 18 urtetik beherakoentzat doan.
Ondoren. Kantu saioa Xantosekin
16:30. Futbol partida. Haurrek haurrentzat antolatuta.
18:30. Kontzertua. Belarminak.
Ondoren. DJa.
20:30. Jai bukaera eta garbiketa auzolanean.

Kultura eta gazteria dirulaguntzak Ibarran

IBARRA. Ibarrako kultura eta gazteria sailak 2013 urteari dagozkion dirulaguntzak emateko deialdia ireki du. Eskaerak azaroaren 17a bitartean aurkeztu daitezke udal erregistro nagusian. Oinarriak eta bete beharreko inprimakiak kultur etxean edota ibarrakoudala.net webgunean eskuratu daitezke. Informazio gehiago behar duenak 943 670399 telefono zenbakira deitu dezake.

Orexako aste kulturala abiatzear

OREXA. Orexako kultur astea azaroaren 4tik 16ra bitartean luzatuko da aurten. Datorren astelehean, Jokin Aldazabalek eskainitako hitzaldiarekin hasiera emango zaio kultur asteari. Aldazabalen hitzaldiak etxebizitzen kudeaketa energetikoa jorratuko du eta 21:30ean hasiko da. Astean zehar, besteak beste, monologoak, ipuin kontaketak, kantaldiak eta dokumental proiekzioak eskainiko dira.

Bigarren eskuko azoka Amezketan

AMEZKETA. Azaroaren 17an, azken urtetan bezala, azoka ospatuko da Amezketan. Aurtengo berritasuna, kontsumo arduratsua bultzatu nahiarekin, bigarren eskuko azoka proposatu dute Amezketako udaletik. Azaroaren 8a bitarteko epemuga dago, saldu nahi diren elementuak -arropa, liburuak, jostailuak...- udaletxeko ganbarara eramateko 19:00etatik 20:00etara bitartean.

Parekidetasun tailerra

ANOETA. Anoetako Gazte Asanbladak larunbatean, azaroak 2, 16:00etan hasita parekidetasun tailerra eskainiko du. Gazte Asanbladak, parte hartzea zabala izan asmoz, deialdia Anoetako bizilagunei zabaldu nahi izan die.

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

tolosaldeko ataria

2013-10-31
OSTEGUNA

Eguraldia:

Goiza 19º
Arratsaldea 15º

Bihar
Goiza: Lainotuta
Arratsaldea: Lainotuta
Beroena: 21º
Hotzena: 16º

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
P.E: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo @ataria.info
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea @ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea @ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea @ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
• **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:
galtzaundi · Txolarre · berria · BERTAKO HEDABIDEAK · Tolosaldeko gizarte eragileak

Ataria-k Bai Euskarari

Gipuzkoako Foru Aldundia

Glaukoma taldeak egin du Japoniarako jauzia

Arandia, Rubio, Caminos, Pando, Arakama eta Albisua, hegazkinean sartu aurretik; eskuinean, kontzertuen kartela. ATARIA

Sei kontzertu emango ditu talde tolosarrak Japonian; TOLOSALDEKO ATARIA-n bertako esperientzien berri emango dute, kideek

ERREDAKZIOA TOLOSA

Astelehen goizean hartu zuen Japoniarako bidea Glaukoma talde tolosarrak. 08:30ean zuten hitzordua Bonberenean, eta motxila bete ilusio eta gogorekin abiatu ziren Loiuko aireportura, 25 orduko bidaiari hasiera emanez.

Jokin Albisua (gitarra), Juantxo Arakama (abeslaria), Pablo Rubio (bateria), Julen Caminos (teknikoa), Asier Arandia (baxua) eta Iker Pando (gitarra) dira espedizio honetako kideak, eta lehen hegazkina hartu aurretik, taldeko abeslariak, ATARIA IRRATIArentzat hitz egin zuen: «lasai gaude, guztia ondo antolatua baitago».

Lehen geldialdia Minakami hirian egin dute, gaur, eta Canyons izeneko antzokian emango dute birako lehen kontzertua. Hurrengo egunean, Niigata-n izango dira, eta Charly's tabernan eskainiko dute bigarren emanaldia. Hirugarrena, Toyama-ko Club Mairo-n izango da. Handik, Nagoya-ra joango dira. Azaroaren 4an, Yokohama-n egongo dira, eta azken kontzertua, Tokio-ko Shimokitazawa-n emango dute hurrengo egunean. Azaroaren 6an ekingo diote itzulerako bidaiari.

Biran, besteak beste, Ekddik, Tex & Sun Flower Seed, Dub Bastards, Udagawa Bekkan Band, EKD, Traditional Asia, Gnkosai Band, Thunderbeat, edota Mitsukaze & Green Massive taldeekin elkarbanatuko dute eszenatokia.

Biraren berri, ATARIA-n

Egunean eguneko kronika egingo du Japoniatik Juantxo Arakama taldeko abeslariak. Japonian izaten dituzten bizipen, esperientzia eta anekdotak kontatuko ditu, eta TOLOSALDEKO ATARIAren webgunean jarraitu ahal izango da, Glaukoma #Japantour izenarekin sortu den atalean sartuz. Twitter-en berriz, #Japantour traola erabiliko da.

• **ataria@ataria.info** •

Agenda

DEIALDIAK

BERASTEGI. Kultur Astearen barruan, Kulki-Itsasondoko kirolak haurrentzat izango dira, frontoian. Ondoren, txokolate jatea izango da 16:30ean. 19:00etatik, aurrera, pintxo potea herrian zehar egingo dute. 21:00etan, berriz, Euskal Herriaren historiari buruzko hitzaldia eskainiko du Josu Curielek, 21:00etan, udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

IBARRA. Gabonetako apaingarri iraunkorrak egiteko, eta energia kontsumoa murrizte aldera birziklatzeko materiala bildu nahi dute Uzturpe ikastolako ikasleek. Udaletxean utzi beharko dira, eta gaurkoa da horretarako azken eguna.

TOLOSA. Altzoan Astearen barruan, elkarteko lokalaren inaugurazioa egingo dute, Abastos eraikineko lehen solairuan. Aurkezpena eta bisita gidatua, marrazki jokoa haur eta gurasoentzat eta luntxa izango dira, 18:00etatik aurrera.

TOLOSA. Larramendiko lehen krosa izango da, larunbatean, gaztetxo eta helduentzako. Helduek 10 kilometro egin beharko dituzte, eta izena *www.kirolprobak.com* helbidean eman beharko da.Sariak eta zozketak izango dira.

TOLOSA. Azaroaren 2an, larunbatean, 11:00etan meza ospatuko da San Blas kanposantuko kaperan, herrian hildako guztien alde.

ANOETA. Anoetako Gazte Asanbladako kideek antolatuta, larunbatean, hilak 2, 16:00etatik aurrera parekidetasun tailerra izango da. Anoetako Gazte Asanbladako kideez gain, herritar guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzera.

TOLOSA. Tolosaldea Garatzen eta Lehiberrik, kooperatibak sustatzeko elkartea den Elkar Lan erakundearekin batera, Kooperatibak sortzeko formakuntza hitzaldia antolatu dute. Azaroaren 6ean 16:00etatik 18:00etara izango da Lehiberri Zentroan. Doan izango bada ere izena ematea beharrezkoa izango da. Horretarako, 943 65 45 01 telefono zenbakira edo *zubeldia@tolosaldea.net* helbidera idatziz egin daiteke.

MUSIKA

IRURA. Desordutan taldeak Reset izeneko birarekin aurrera jarraitzen du eta kontzertua emango du gaur, Irurako Trinketean 23:00etatik aurrera.

Farmaziak

Gaur
Tolosa:
Egunekoa eta gauekoa:
Morant, R.
Zabalarretako lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

Zorion Agurrak

Zorionak Eneko!
Gaur 8 urte! Muxu handi bat aitatxo, amatxo, Irati eta Oierren partetik.

Urtebetetzeak
Ezkontzak
Jaioberriak
...

AGURRAK
943-65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20 • TOLOSA